



Larunbata, 2009ko azaroak 7 - 09:27 Iritzia

[Hasiera](#)
[BerriaTB](#)
[Parte Hartu](#)
[Blogak](#)
[Bereziak](#)
[Kanalak](#)
[Zuzenekoak](#)



[Harian](#) |
 [Iritzia](#) |
 [Kirola](#) |
 [Agenda](#) |
 [Plaza](#)

Berria.info » Papereko Edizioa » Iritzia



Albisterik...

- 1 'Egunkaria libre!' aldarrikatu dute musikariek Donostian
- 2 Bahitzaileek atzo Somaliara eraman zituzten hiru arrantzaileak berriro 'Alakrana'-n daude
- 3 Dimitri de Fauw txirindulariak bere buruaz bertze egin du
- 4 Laffage itota hil zutela baieztatu dute auzitegiko medikuek
- 5 Abertzaletasun instituzionala indartzeko ituna proposatu du Hamaikabatek

2006-07-22

Atzoko Araba , hamaika arrazoi

ERLANTZ URTASUN

Historialaria

Ez zakiat, ene Lauaxeta maitia, zenbatetan mintzatu garen honetaz. Bai, bazakiat, «gutierrez, hamaika». Izan ere, pazientzia handiko irakurlea, gure Alexandriako Liburutegian intxaurrak hamalau, hurbildu eta lau beharrea hamaika azaltzen zaigu.

Iruñeko teilatuetako altxorraz ari gara, jakina, sanferminetan ezkututzen duguna, ostalaritzako enpresa handiek aberastu behar dutelakotz, zurtoak 3 euro lekuko. Hemengo jende gehienak ospa egin du. Zergatik? Alde Zaharreko ate guziak pixaz beterik, jendea ezin drogatuagoa, musika oro, Zaldikon kenduta, zerbantinoz edo Shakespeare *tutiplé, matxito* mordo bat, autoktono edo australiarra «*aber kien es el ke la tiene más grande*», eta dena «*de buen rollo*».

Kontua da gure Alexandriako Liburutegia ustez baino handiagoa dela, kar kar, eta hemengo Iruñean, Irunen, urrutiko Iparraldean ez ezik, Arabako Iruñan ere badu apalategirik, Langraiz inguruetan, espete beldurgarriaren ondoan. Hau paradoxa, presoen gisa ere bizi garelakotz Iruñeko euskaldunok, ezin erosoago bizi diren eta euskaraz dakiten betiko aprobetxategiak salbu, noski. Badakizue, poltroneroak, klasistak, politikeroak, kuneteroak, baskitoak, ustelak...

Enfin. Hamaika gauza agertu da Arabako bihotzean, Uda-Trebiñu, Argantzungo mugetan. Eta ondorioz gertatu dena «bitxia» da, alajaina, batzuek betidanik genekiena komunikabideek Tutankamonen hilobiaren aurkikuntza bezala aurkeztu dutelakotz. Denei irakurri eta gauza bakarra bururatu zait: «a zer kopeta daukaten».

Hamaika arrazoi. Bat. Arrazoa gurea delakotz. Betikoona, ez komunikabideena. Halere, Iruñeko amatek errana, «*con la razón a la cárcel y al cementerio*». Bidaiariendako abisua. Bi. Duela bi mila urteko arabarrek euskaraz hitz egiten zutelakotz. Kontxo, hori bagenekien. Hiru. Idatzi ere egiten zutelakotz. Albisterik? Lau. Txiroak eta aberatsak zirelakotz. Bapo, kazetari...

Bortz. Barandiaran, Irigoien, Satrustegi, Azkue «*gilipollas*» ez zirelakotz. «Nor, Erlantz? Horiek dira txirindulariak, Shakiraren taldekoak, Amaral, El Canto del Loco? Ah, badakit, surfistak, baietz Erlantz?». Eta Iparragirre, Tapia, Arana, Agirre? *Chungo, en septiembre repito el EGA*. Baina denek ikasi duzue ikastolan edo «D» ereduan... *Sí, pero por costumbre en la cuadrilla hablamos en castellano*. Eta Juan Carlos Perez, Itoizkoa zena entzun duzu? *Qué dices. Esos son zarras*. Bai, horregatik Iruñeko Baluarte berrian, agintarien eskutik, Moustaki edo Garfunkel aritu dira, eta orkestrek jo dituzte Mozart, Beethoven, Bach moduko futbolisten lanak, horiek «*zarras*» ez direlakotz, baina zu lasai, segi *batukada* alternatiboarekin, gure zibilizazioa hiltzen ari baita, egun, gure karriketetan, materialki biziki aberasten garen bitartean...

Snowboard eta ekologista naiz, DVD baina Pasaian porturik ez, a zer errepide kaka baina AHT ez; ez hitz egin ekonomiaz, Erlantz tematia, baina gure lantegi estrategikoek tokia galtzen dute munduan eta gure merkatu propioan, eta zu txokoan zara lagunekin, hor konpon kanpoan zer den. Uzturre, Irujo, Iturbe, Ajuriagerra, Elosegiz? *Aita, la paga*, beranduago zintzo-zintzo obeditzerat bulegoan, funtzionario izan nahi duzu, oporrak kostalde beroagoetan, lau *kiloko* kotxea, pare bat dibortzio, umeren bat, «horrelakoa da bizitza, eginzazu behar duzuna»...

Sei. Jokoz kanpo geratu direlakotz «kultura»-ren hamaika eragile, euskaltzain eta politikari, eskuin-ekzer, Arabako Iruñean diren gauzez bizitza osoan trufatu direnak, doktorego tesiak baztertu dituzten irakasle-funtzionario orojakileak, ikerketa ildoak deuseztatu dituztenak, hain zuzen ere orain «*ya-lo-decía-yo*» aldarrikatuko dutenak. Haietako bakarrik baitira zientzialariak. Haien ustez, adibide ezaguna aipatzearen, Alfontso Martinez Lizarduikoa *tontolaba* bat da, eta bertzeok, berarekin ados egon ala ez, ardiak. Eta, aukeran, katedradunak baino hagitzez pobreagoak... Bon, duintasunak ez baitu burtsan kotizatzen, ulertzen didazu, irakurle...

Zazpi. Alexandriako Liburutegian bezala Euskal Herrian ere hieroglifikoak idazten zituztelakotz. Normala, aibadios, zer idatzi behar zuten, Tau saskibaloitza taldearen emaitzak? Aspaldikoak gu baino leloagoak ez badira, ezerosoak suertatzen zaizkigu? Zortzi. Kristau euskaldunak bazirelakotz. Ai ene, ai zer ezinegona, akabo Basajauna eta harri-jasotzaileak, benetako euskaldunak, pila bat jan eta edaten ohi dutenak elkarteetan, munduarekin harremanik baldin bagenuen, hau zoritxarra... Bederatzi. Ez dutelakotz kokaina aurkitu. Zein arraroak ziren orduko euskaldunak! Hamar. Momentuz Marbellan ez delakotz Langraizko biztanleen «txantxullo»-rik atzeman, ezta «Prozesu»-arekin loturirik ere. Eta hau guzia, galdetu gabe doa, Arabako Iruñekoa egia bada...


Lau katu abertzale. Hamaika. Hemen hamaika hitz, apalategi, gauza, eragile, baina lau katu bertzerik ez garelakotz abertzale. Izan ere, abertzaleok Langraizen agerturikoaz ez baikara harritu. Poztu bai, eta aurkikuntza egin dutenei eskertu, bihotz-bihotzetik. Bortz axola nolakoak diren, zer kolore maite duten edo non dituzten oporrak, baina naziogintzari begirat gora Gil, Knörr eta Gorrotxategi! Baita *Geu-Gasteiz* argitalpenean dibulgazio lanik onena egin duen Kike Fernandez de Pinedo ere! Loteria hau jaso ez duten bertze akademiko enbidiosoei, berriz, izarrai!

Horrela lau katuok hamaika urtez, bai, hamaika, belaunaldiz-belaunaldi zapaldurik, odolez ordainduriko balizko ametsa, sinistu, erran, idatzi, defendatu egin duguna berriz ere egia baita, gurea, euskaldun xumeona, atzoko arabarrena, maite genukeen biharko Euskal Herrikoena. Nago, egungo gazte gehienen erantzuna eta gizarte osoaren hipokrisia ikusirik, alferrik ere gurekin hilko dena, munduko pertsona guzien kalterako bada ere...

Bitxia gero, albiste eskasa honetaz Espainian eta Frantzia, bertze gauza baita benetan axola dena: Rocio Jurado, Zidane. *Matrix*. *Google* delakoan sartu, «Iruña-Veleia» idatzi eta ikusi orrialdeak, oro har nongoak diren eta kanpokoen tonua... Eta bertoko jende anitzen artean honelako adierazpenak: «Euskal Herriko hiririk handiena». Turismorako beharrezkoa bada Nafarroa, Lapurdi eta bertze, duela bi mila urte ere, ez baitira inoiz Euskal Herria izan.

Horregatik, agian, Pablo Sarasate (nor zen hori?) biolin jotzaile abertzalearen etxean bertan jaio zen gure aitatxi batek zera erraten zuen Iruñean, duela ehun urte, torturaturiko hiri hau, nafar hiriburua, «Euskadiko hiriburua» zela. Baina, klaro, 2007ko turismoa inportanteagoa da...

«Eta horrela bizitzen gera, sortuz ta sortuz gure aukera, atsedetik hartu gabe». Tartean ospa dezagun, Lauaxeta, ona ala txarra, erromatarzale ala independentista, «*peneuvera*» ala «*delaeta*», aurten hil diren abertzaleek ikusi ez diatena, gure arbasoek eraiki zitean Langraizko Euskal Herri sakon hura! Topa Irulegiko arnoa! Hurrengo 2007an, gobernu aldatetarekin Iruñean! Euskaldunok bat, bertzenaz, berriz ere banaturik, «gutaz fidatu ta lasai egin lo»...

Hasiera | Euskal Herria | Ekonomia | Mundua | Kirola | Kultura | BerriaTB | Parte Hartu | Blogak | Bereziak | Paperekoa |  | 

© Berria.info - Euskal Editorea S.L.

Martin Ugalde Kultur Parkea, Andoain 20140

Telefonoa: 943 304 030 / Faxa: 943 590 172

berria@berria.info - www.berria.info

Lege Informazioa



Laguntzaileak:

